



Distantzia 3,32 km	Desnibela 200 m	Iraupena 1h30	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR seinaleak (horiak) ibilbide osoan
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	--

Donibane Garazitik abiatzean, hartu D933 errepidea Baionara buruz, eta gero D301, "Jondoni Jakue". Harresietatik 150 m-ra, itzul eskuin D428 errepidean. Segi mendiko errepide hertsu horretan 18 km-tan, GR seinaleak segituz (gorriak eta zuriak). Jondoni Jakue bidea (GR65) errepide horretatik iragaten da nagusiki. Kasu ibiltari anitz baita. 2,7 km "Thibault" deitu gurutzean hartu eskuineko bidea. 100 m urrunago ibilaldiaren abiapuntuko aparkalekua baduzu, Arnoztegiko lepoan.

GPS datuak: **UTM 642753 - 4767052 / N 43,04273° - W 1,24742°**

Garaziko lepoetan jendea protohistoriaz geroztik ibiltzen da, Pirinioak iragateko leku pribilegiatua da. Leku horretan ibili den jende ugarien aztarnak ez dira beti ageri, baina beste batzuek iraun dute. Itxura desberdineko ibilbide labur horretan aberastasu historiko hori ikusiko duzu. Ibilbide labur baten ondotik lepo bakarrean trikuharriak, harrespilak eta gotorlekua ikusiko dituzu. Gero goratasuna hartu beharko duzu eta gisu-arroka zapaldu Urkuluko karsta ezagutzeko; gizakia baino aise lehenagokoa da. Zenbait metro igan ondoan Urkuluko dorrea agertuko zaizu. Izen bereko kaskoan da erromatar dorrea, eta arrunt molde harmoniatsuan nahasten da paisaiari. Ikuspegi ederra bada bertatik gunee zabal horien gainera, non artzaingoak bizirik dirauen.



1. ZATIA > Soroluzeko lepoa

UTM : 642753 - 4767052

Aparkalekutik segi hesia, 205 mugarritik hurbil, aska batera buruz. Askan itzul ezker mendi mazelan den xendrra heltzeko, desnibel doi batekin. Eskuin, ote larre baten ondotik, laster pagadi ederra atzemanen duzu Txangoa ibarxkan.

1 km gabe, Soroluzeko lepora helduko zara, eta han historiako aztarnak ikusiko dituzu (trikuharria, harrespilak eta gotorlekua).

2. ZATIA > Bi arroka handiak

UTM : 643520 - 4766679

Lepo horretatik igan ezker, arroka-pareta batzuei buruz altxatzen den kasko borobilduan. Bazkalekua da, eta ez da bidexkarik ageri. 100 m urrunago xendra bat ageri da tarte laburrean, baina bide ona atxikitzeke parada eskaintzen du. Laugune belartsu baten ondotik, igoera zinez patartsu bihurtzen da. Zoaz arroka-pareten heinean diren bi arroketa.

3. ZATIA > Harresiko pasagunea

UTM : 643708 - 4767111

Arroka horietarik zoaz ezker eta igan arroka-paretetara heltzeko. Zoaz haien luzeran laugune belartsu batera heldu arte. Arroka-paretan pasagune bat bada ibilbidea segitzeko.



4. ZATIA > Urkuluko dorrea

UTM : 643635 - 4767204

Arroketa igan eta segi ezker maldan den harresi natural baten gainaldetik. Egon zaitez honen gainaldean 50 m-tan eta progresiboki urrundu zaitez eskuin hartuz. Hortik dorrea ikusiko duzu; segi ibilbidea ahalaz gunee belartsuetatik. Laugune belartsua duen lepora helduko zara, justu dorrearen azpian. Ongi so egiozu lepo horri, ibilaldia bururatzeko berriz hortik ibili beharko baituzu. Segi eskuin arroka-paretatik iragan gabe. Hondakin batzuetatik iraganen zara, eta gero Urkuluko dorrera helduko.

5. ZATIA > Arnoztegiko lepoa

UTM : 643265 - 4767376

Gorago aipatu lepora itzuli ibilbide beretik. Zeharkatu laugune belartsua eta gero arroka gunee laburra. Hasi jausten Arnoztegiko lepora buruz, eta han abiapuntuko aparkalekura helduko zara.



INTERESGUNEAK

❖ Soroluzeko trikuharria eta harrespilak

Mendietan ibili diren gure arbasoen lekuko dira hilobi horiek, eta Brontze Arokoak dira. Higadurak harri meten estalkia garaitu du, eta trikuharriaren megalitoak ageri dira. Harrespilak ere badira: zutik eta zirkuluan ezarriak diren harriak dira. UTM : 643533 - 4766444

❖ Soroluzeko gotorlekua

Identifikatzeko zailago da gotorlekua; izar formako fortifikazio militarra da. Napoleondar Gerlen garaikoa da (XX. mende hastapeneko). Hastapeneko forma zehazki hautemateko zaila da, baina hango arrolek eraikinaren neurria nolakoa izan zitekeen erakusten dute. UTM : 643536 - 4766324

❖ Urkuluko karsta

Karst horek osatzen du, ozeanotik, lehenbiziko kare-mendigune nagusia. Bigarren garai geologikoko kare horien arraildurek ez dute uzten urari luzaz azalean egotera. Lurperatzen da eta leizeak eta harpeak zilatzen ditu, eta 1000 m beherago ateratzen Errobiko iturrien osatzeko. UTM : 643475 - 4767266

❖ Urkuluko dorrea

Trofeo-dorre hori gure garaiko I. mendean eraikia izan omen da, erromatarrek Akitania konkistatu zutela ospatzeko. Burdigala (Bordele) eta Asturica (Astorga, Espainian) lotzen dituen erromatar bidetik hurbil, Galia eta Espainiaren arteko muga zen. UTM : 643265 - 4767376

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Bidexkaren inguruan leizeak eta arrokarteak daude: ez urrundu seinalatutako bidexkatik puntu horretatik Arnoztegiko leporantz hasten de jaitsieraraino UTM 643708 - 4767111

- Bidexkaren inguruan arraildurak eta harrizko harresiak daude: erne egon harresiaren gainean zaudelarik UTM 643589 - 4767212

- Urkuluko dorrearen inguruan amildegia eta barra arrokatsu arriskutsuak daude: erne egon dorrea mirensten duzularik UTM 643265 - 4767376

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezaketek!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak
- BAIGORRI
Herriko Etxeko plaza
+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU
Charles de Gaulle plaza
+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI
Charles de Gaulle plaza
+33(0)5 59 37 03 57

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└	└	└	▲
Itzul eskuin	┘	┘	┘	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗